

Zerk dakar zoriontasuna?.mp3

Esataria: Gaurko irratsaioan galdera bat egingo diegu entzuleei: Zerk egiten zaituzte zoriontsu? Entzun utzi dizkiguten mezuak.

Entzulea 1: Kaixo, Endara naiz, Lesakatik deitzen dut. Ba, nik musikarekin goxatzen dut. Sortzea maite dut, eta kantatzeak egiten nau zoriontsu, eta, nola ez, jendea nirekin batera euskaraz kantatzen entzuteak ere bai!

Entzulea 2: Egun on, Kattalin naiz, Errenteriatik. Ni pailazoa naiz, eta sudur gorriak alaitzen nau. Ospitaleetan ibiltzen naiz gaixo dauden haurrak bisitatzen, eta oso zoriontsu egiten nau haiek irribarretsu ikusteak, neure burua erabilgarri sentitzeak, eta besteei zoriona helarazteko nire harri-koxkorra jartzen ari naizela sentitzeak ere bai.

Entzulea 3: Hepa. Eneko naiz, Hernanitik deitzen dizuet. Ni errugbiarekin nago maiteminduta. Zoriontsu egiten nau taldekideekin errugbian aritzeak, eta, jakina, irabazteak ere asko poztzen nau!

Entzulea 4: Kaixo. Onditz naiz, Leioatik. Niri itsasoak ematen dit zoriona, surf egiteak, olatuen gainean irristatzeak... Ez dago munduan gauza hoberik!